

**ENERGIA ETA MEATZARITZA AURREZTEKO ETA GARATZEKO
ERAKUNDEAREN (CADEMEN) KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA
BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, PROZUDURA IREKIAZ ESLEITZEKO
LAGUNTZA TEKNIKOKO KONTRATU HAU: BOLUETAKO HIRIGINTZA
GARAPENERAKO ENERGIA HORNIDURA ZERBITZUAK EMATEKO
ENPRESARENTZAKO NEGOZIO PLAN BAT EGITEA**

ESPEDIENTE ZENB.:

CIN/10/001

PROZEDURA IREKIA

Bilbon, 2010eko abenduaren 29an
CADEM – Industria Saila

KARATULA

ADJUDIKATZEKO ERA: Lehiaketa irekia.

ESPEDIENTE ZENB.: CIN/10/001

A. KONTRATUAREN XEDEA

Boluetako hirigintza garapenerako energia hornidura zerbitzua emango duen enpresarentzako negozio plan bat egitea.

B. ORGANO KONTRATATZAILEA

CADEM, honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

- I.F.Z.: A-01025741
- Pertsona arduraduna, teknikaria: Ismael Aranda
- Telefonoa/faxa/posta elektronikoa: 94-403.56.76/94-403.56.99/iaranda@eve.es
- Kontratatzailearen eskakizuna edo profila: www.eve.es

C. GEHIENEO PREZIOA ETA AURREIKUSITAKO KONTRATUAREN BALIOA

- - Litzitazioaren gehieneko prezioa: 50.000 euro (BEZa gabe)
- - Aurreikusitako kontratuaren balioa: 50.000 euro (BEZa gabe)

D. IZAPIDEA

Ohikoa.

E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA

Eskaintzak edo proposamenak 2011ko urtarrilaren 20ko 12:00ak arte jasoko dira.

F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA

Proposamenak CADEMi zuzenduak aurkeztuko dira, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez dagokio.

H. BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dagokio.

I. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio.

J. ZERBITZUA GAUZATZEKO EPEA

Hiru hilabete, kontratua sinatzen egunetik kontatzen hasita, eta 5. eranskinen aipatzen diren tarteko mugarriak kontuan hartuz.

K. BERMEEI DAGOZKIEN EPEAK

Ez dagokio.

L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Ez dagokio.

M. ALDAGAIEN ONARPENA

Ez dagokio.

N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA

Plegu honen 8.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena erabakitzeke erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

| (B) gutun-azala – Formula matematiko bidez ebaluatu ezin diren irizpideak | | |
|--|--|----------------|
| Irizpidea | Deskribapena | Puntuak |
| 1 | Proposamenaren egokitasuna ezarritako helburura | 10 |
| 2 | Hobekuntzak eskatutakoaren aurrean (epearen laburpena, irismen handiagoa, etab.) | 10 |
| 3 | Lan taldea: Eskatzen diren alorretan espezializazio maila | 10 |
| 4 | Berritasuna, sormena, antolatzeke eta koordinatzeke gaitasuna | 5 |
| (C) gutun-azala – Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak | | |
| Irizpidea | Deskribapena | Puntuak |
| 5 | Proposamen ekonomikoa | 65 |
| GUZTIRA | | 100 |

Proposamen ekonomikoen balorazioa kostu txikiena duen proposamenean oinarrituta egingo da, eta proposamen horri 65 puntu gehituko zaizkio. Gainerako eskaintzak edo proposamenak honako formula honen bidez baloratuko dira:

$$\text{Proposamen ekonomikoa} = 65 \times \frac{\text{Precio ofertado menor coste}}{\text{Precio ofertado propuesta a evaluar}}$$

P. ZIGORTZEA

Plegu honetan aurreikusten direnak.

Q. LUZAPENA

Ez dagokio.

R. LANAK ZATIKA JASOTZEA

5. eranskinean eman beharreko atal bakoitza zehazten da, eta egingo den lana jasotzeko epeak hauexek dira:

Eman beharreko 1. atala: Kontratua sinatzen denetik hilabetera
 Eman beharreko 2. atala (zirriborroa): Hasieratik 2,5 hilabetera
 Eman beharreko 2. atala (azkena): Hasieratik 3 hilabetera

S. PREZIOAREN ORDAINKETA

Ordainketa bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak CADEMi faktura eman eta azken honek onartzen duen egunetik kontatzen hasita.

T. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

U. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete Foru Aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saileko Lana eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua saileko Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBE sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeko aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Horrela, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa.

ONARRIZKO BALDINTZAK

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.1. Kontratuaren araubide juridikoa:

- Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan eta bere karatulan zehaztutakoa, baita Zehaztapen Teknikoen Txostenean jasotzen dena ere. Horrekin batera, Energia eta Meatzaritza Aurrezteko eta Garatzeko Erakundeak (“**CADEM**”) onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan adierazitakoa (“**KABI**”) eta Kontratatzailearen Eskakizuna atalean argitaratua (www.eve.es) eta esleipendunarekin sinatuko den kontratuan jasoko diren baldintzekin eta itunekin bat etorritik.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera (“**SPKL**”). Plegu honen klausuletan adierazten diren gaiak dagokienez, soil-soilik.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (aurrerantzean “**HAKLEO**”), aurreko puntuan azaldutako gaiak dagokienez.
- Zuzenbide Pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren interpretazio, ondorio, betetze eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

1.2. Lanak egiten arituko diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzaileek bete beharko dituzte indarrean dagoen lan eta gizarte legeria.

1.3. Kontratuaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako dokumentuak eta eranskinak edo itundutakoa gauzatzean zerikusia izan dezakeen Administrazioak xedatutako arau, plegu eta aginduen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista edo enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua Plegu honen Karatulan “**A**” **ATALEAN** adierazia da. Hori guztia baldintza teknikoaren arabera, Zehaztapen Teknikoen Txostenean adierazten dena. Plegu honetan jasoko dena, 5. eranskina, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako proiektua kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

3. LIZITAZIOAREN GEHIENEO AURREKONTUA, AURREIKUSITAKO BALIOA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

a) Kontratu honen lanak gauzatzeko gehieneko prezioa Plegu honen karatulako “**C**” **ATALEAN** adierazitakoa izango da.

b) Aurreikusitako balioa Plegu honen karatulako “**C**” **ATALEAN** azaltzen da, aurreikusitako balioa kalkulatzeko, SPKLen 76. artikulua xedatutakoa kontuan hartu da, BEZa gabe.

c) Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa. Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Plegu honetan bildutako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).

d) Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, CADEMek ez ditu ordainduko, 5. eranskinean ageri den Zehaztapen Teknikoen Txostenaren arabera.

4. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen “I” **ATALEAN** zehazten dena beteko da.

5. GAUZATZEKO EPEA

- 5.1. Gauzatze epea Plegu honen Karatularen “J” **ATALEAN** adierazitakoa izango da.
- 5.2. Ezarritako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira edo CADEMek lan programan onartuko dituenak izango dira.
- 5.3. Zehaztapen Teknikoen Txostenean lanak egiteko epeak laburtzen edo jardueren ordenamendurako zatikako epeak ezarriz gero, ezinbestean bete beharko lirateke, horrela eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.
- 5.4. Karatularen “Q” **ATALEAN** hala aurreikusten baldin bada, kontratua amaitutakoan, alde guztien oniritziarekin, kontratua luza daiteke.

6. ADJUDIKATZEKO ERA

6.1 CADEMek kontratatzeko dituen barne-jarraibideak edo arauak aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan.

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

- (i) lehen fasean (“*Eskaintzen aurkezpena*”), interesatutako lizitatzailleek dokumentazio orokorra (A gutun-azala) eskaintza ekonomikoak (B gutun-azala) eta teknikoak (C gutun-azala) aurkeztu ahal izango dituzte;
- (ii) bigarren fasean (“*Kontratatzen hautaketa*”) lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen aztertu ondoren, CADEMek kontratua formalizatzeko lizitatzailera hautatuko du; eta
- (iii) hirugarren fasean (“*Formalizazioa*”), CADEMek eta hautatutako lizitatzailleak kontratua sinatuko dute.

6.2 CADEMek eta kontratistak men egingo diote informazioaren konfidentzialtasuna babesteko obligazioari, KABIren 6.(d) atalean ezarritako moduan.

6.3 Kontratazio-organoa “B” **ATALEAN** azaldutakoa izango da.

6.4 Kontratazio-organoari laguntzeko, kontratazio-mahaia edo organo baliokideren bat era daiteke, eta hauxe arduratuko da parte-hartze eskaerak kalifikatu eta eskaintzak baloratzeko.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

- 7.1 Proposamenak aurkezteko epea 2011ko urtarrilaren 20ko 12:00ak arte izango da.
- 7.2 Proposamenak honako helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48011 Bilbo.
- 7.3 Lizitatzailleak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.

- 7.4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoez aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute. Halaber, ezaugarri hori kredita dezakete zerbitzu-enpresatza sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratueterako kontsultabatzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako **"N" ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.
- 7.5 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 48. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkaturiko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, CADEM-en aurrean. Enpresari horiek guztiek aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratze konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiek izenpetu behar dute adierazitako agiria.
- 7.6 Lizitatuzaileen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZa izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.
- 7.7 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, CADEM erakundeko kontratatzailearen eskakizunean edo profilean lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.
- 7.8 Lizitatuzaileek ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako **"M" ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Lizitatuzaileek ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu, baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarria izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 129.3 artikulua arautzen duena beteko da.

Adierazitakoa betetzeko izango bada ere, lizitatuzaileek aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratu-xede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.

- 7.9 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.

- 7.10 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, CADEMekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.
- 7.11 Lehiaketatik kanpo geratuko dira, CADEMek behar bezala arrazoitu eta gero, honako egoera honetan leudekeen proposamenak:
- Proposamenak epez kanpo aurkeztea.
 - Eskatutako gaitasun profesional edo enpresariala ez aurkeztea.
 - Plegu honetan eskatzen den kaudimen ekonomiko, finantzario, teknika edo profesionala ez aurkeztea.
 - Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo aldi baterako beste enpresa lizitatzailerak batzuekin batera.
 - Plegu honetan edo zehaztapen teknikoan pleguan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
 - SPKLeak eskatzen dituen baldintzak ez betetzea.

8 PROPOSAMENEN EDUKIA

8.1 Lizitatzailerak hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan, datu hauek adieraziko dituzte: lizitatzaileraren izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteko, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteko, baldintza-orri honetako karatularen "**A**" **ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.

8.2 Hiru gutun-azalak helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 1. solairua, 48011 BILBAO. Baldintza-orri honetako karatularen "**E**" **ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean.

"Gaiari" dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:

- "**A**" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: Dokumentazio administratiboa"
- "**B**" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: Iritzi bidez ebaluatu ahal diren irizpideak"
- "**C**" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak"

8.3 Baldintza-orri honetako 8.5. atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu "A" gutun-azalak, "B" gutun-azalak 8.6. atalean zehaztutakoa eta, azkenik, "C" gutun-azalak 8.7. atalean zehaztutakoa.

8.4 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileek onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta CADEMek uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.

8.5 "A" gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.

- CADEMeko sarrera-erregistroan aurkeztuko da dokumentazio hori, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azalean, espediente-zenbakia adieraziko da, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako "**A**" **ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, "Dokumentazio orokorra" dela iragarritz.
- Dokumentazio administratiboaren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatzailerak eta Estatuko lizitatzailerak eta

enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenek nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz, eta 3. eranskina behar bezala beteta.

- Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistroa agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte "A" gutun-azalean:
 - a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emailea, eta beste pertsonaren baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonak, berariazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.
 - b. Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legediak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.
 - c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatzeko adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.
 - d. Ardurapeko adierazpena, ahalmentutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49.1. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Alderdi hori kreditatzeko, beteta eta izenpetuta aurkeztuko dituzte baldintza-orri honetako 2. eranskina.

Adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.

- e. Baldintza-orri honetako 3. eranskina behar bezala beteta aurkeztuko da.
- Baldintza-orriko karatulako "**G**" **ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du.
- Lizitatzaileren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala kreditatzeko, kaudimen hori dutela egiaztatzen duten honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

1. Finantza-erakundearen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.

2. Urteko kontuak, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko obligaziorik ez duten enpresariak, bestalde, kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legeztatuta.
3. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, edo haren ezean, kontratu honi lotutako jarduerekin zerikusia duten jardueren negozioaren bolumenarena, azken urtean izandakoen datuei dagokienez.

- Kaudimen tekniko edo profesionala

1. Azken 3 urtean honen antzeko ezaugarriak dituztenen kontratu nagusien zerrenda, haien prezioak, datak eta onuradunak (publikoak eta pribatuak) adieraziz.
2. Esleipen honen lanak egiteko lan-taldearen deskribapena, alor horretan langileen gaitasuna eta esperientzia azalduz.

Behar bezala arrazoitutako kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta CADEMek egokitzat jotzen badu egiaztapen-bide hori.

- Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea

Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoez balia daiteke, erakunde horiekin izango dituen harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontratistek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behineko esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.
- b) Azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.
- c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatu dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
- d) Etorkizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilaren bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratatu nahi baditu, SPKLen 210.2 artikulua a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzeritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, tekniko edo profesionala:

1. Gaitasuna

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren

ziurtagiriak aurkeztea.

- Gainerako enpresa atzerritarrek,
 - Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrak edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-esparruan.
 - Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrak edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrak emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak Merkataritzako Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.
 - Enpresak Espainian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

2. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala

Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzerritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpresei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri honetako Karatularen "N" **ATALEAN** xedatutako moduan.

- Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, SPKLeko 56.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.

Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.

- Enpresen langilerian ehuneko biko edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoa, berariaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori betetzen dela, baldin eta enpresek SPKLeko seigarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.

8.6 **“B” gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei lotutako dokumentazioa**

Lizitazileak honako dokumentazio tekniko hau aurkeztuko du:

Azalpen memoria eta lan metodologia: Egin beharreko lanen deskribapena. Jarraituko den lan metodologiaren nondik norakoa aurkeztuko da, baita CADEMekin izango duen harremana ere.

Jardueren egutegia: Egingo diren lanak egutegi batean jasoko dira, eta ezarritako gehieneko epeetan laburtzeko aukera onartuko da.

Kontratua gauzatzeko lan taldea: Zehaztapen Teknikoen Txostenean azaltzen diren lanak egiteko behar den esperientzia egiaztatua eduki behar da.

Baliabide materialak: Proiektua egiteko enpresak jarriko dituen baliabide materialen deskribapena (administrazio kudeaketa, automobilak, etab.).

Proposatzen diren hobekuntzak: Dokumentu honetan adierazten diren baldintzen hobekuntzak izango dira atal honetan sartuko direnak.

Nolanahi ere, Zehaztapen Teknikoen Txostenean eta baldintza-orri honetako **“O” ATALEAN** adierazitakoa esleipen-irizpideak baloratzeko behar den dokumentazio guztiak jaso behar dute lizitatuzaileek gutun-azal honetan.

Proposamen teknikoa honako lizitazio hau eskatu duen sailaren zerbitzu teknikoei helaraziko zaie, aurkeztutako proposamenak balioesteko.

Zerbitzu teknikoaren txostenean lizitatuzaileen proposamenak balioesteaz gain, balioesteko irizpideak eta horietako bakoitzari emandako puntuazioa ere kontuan hartuko dira.

Era berean, lizitatuzaileek kontratu honetan jasotzen diren lanen atalen bat azpikontratatzeko asmorik badute, kontratuaren zein atali dagokion zehaztasunez adierazi beharko dute. Horrekin batera, azpikontratazio horren prezioa eta arduradunen gaitasun tekniko edo profesionala ere adieraziko da.

Azpikontratatistek geroago egin dezaketen edozein aldaketa, aldezturik aurretik CADEMen baimenaz egingo da, eta Plegu honen 22. klausula edo atalean xedatutakoa beteko da.

B gutun-azalak ez du edukiko, inola ere, lizitatuzaileak eskaintzen dituen baldintza ekonomikoak edo prezioa. Eskakizun hori ez betetzeak eskaintza bazter uztea ekarriko du.

Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.

- 8.7 **“C” gutun-azala: Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak**
Baldintza-orri honetako 1. eranskinean jasotako proposamen-ereduari jarraituko zaio (prezioak ezingo du gainditu aurrekontuari ezarri zaion gehienezko zenbatekoa), eta proiektuak adierazitakoa beteko da. Aparteko kontu-sail batean jasoko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen marraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da.

Lizitzaileek ezingo dute, SPKLeko 129. eta 131. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako Karatularen "**M**" **ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago aurkeztuz gero, bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitzaileak.

9 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

- 9.1 Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.
- 9.2 SPKLen 144.1 artikulua xedatutakoa ez da aplikagarria izango, izaera armonizatua duten kontratuei lotutako proposamenen irekieraz.
- 9.3 Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitzaileak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Telefonoa erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitzaileak eskaintzan adierazitako telefono-zenbakia.
- 9.4 Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesionala baldintza-orri honetan adierazitako moduan kreditatu ez duten lizitzaileak, bai eta, kasu horretan badaude, zerbitzu-entresen sailkapena kreditatu ez dutenak ere.

10 ESKAINTZA HAUTATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- 10.1 Lehiaketa esleitu gabe uzten ez badu, esleipena abantailatsuena den proposamenari egiteko aukera izango du CADEMek, eta, horretarako, ez du, ezinbestean, haren balio ekonomikoari erreparatu behar.
- 10.2 Esleipenari ekin aurretik, CADEMek eskubidea izango du kontratua bertan behera uzteko, espedientean behar bezala justifikatuta, edo hautatzeko prozedurari ez ekitea, kontratua prestatzeko araudietan edota esleipena bideratzeko prozeduran hauste edo akatsen bat gertatuz gero.
- 10.3 Baldintza-orriaren karatulako "**O**" **ATALEAN** adierazitako oinarrizko balorazio-irizpideak baliatuko dira eskaintzak baloratzeko.
- 10.4 Irizpide gehigarri gisa, baldin eta horrela ezarri bada, eta proposamen ekonomikoei dagokienez, positibotzat joko dira lanak egiteko eta epeak betetzeko bermeak aurkezten badira.
- 10.5 Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arazoizko baliora gehien gerturatzen diren eskaintzak hautatzea.
- 10.6 Baja arinei dagokienez, HAKLEOko 85. artikulua eta SPKLeko 136. eta 174.1.a artikuluek xedatutakoa beteko da.

10.7 Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratuko da: kaudimen teknika kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko bikoia edo handiagoa duena.

11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA

11.1 Eskaintzak baloratu eta enpresaburu esleipenduna hautatzeko gehienezko epea hamabost (15) egunekoa izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, erabakia jakinarazi ez bada, lizitatzailleek, egoki irizten badute, beren proposamenak erretiratzeko asmoa dutela jakinaraz dezakete.

11.2 Kontratua sinatu aurretik, zenbait agiri aurkeztu behar dizkio CADEMi hautatutako enpresaburuak. Horretarako, hamar (10) egun balioduneko epea izango du gehienez, agiri horiek eskatzen zaizkion unetik aurrera. Hauek dira agiriok:

a) Zerga-betebeharrak

- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazio Estatuko Agentziak emana, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.
- Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiek emandakoa, administrazioarekin zerga-betebeharrei lotutako zorrik ez duela egiaztatzen duena, edo hertsadura bidea erabiltzeko ez dagokien zergadunen kasuan, borondatezko epean ordaindu ez diren zorren inguruan.

b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak

Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzaren Lurralde Altxortegiak emandakoa, Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

Jarduera ekonomikoen gaineko zergako alta-agiria edo zerga horretako azken erreziboa aurkeztu behar du, eta, horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztuko du (4. ERANSKINA) zerga horretan baxerik ez duela hartu azalduz. Aurkeztu behar ez baldin bada, hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.

b) Aseguru enpresak egiaztatuta, aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 20. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.

c) Behin betiko bermea ezarri izanaren egiaztatzea, karatulan "H" atalean hala erabaki baldin bada,

d) Beste dokumentu batzuk. Kontratatzeko gai den egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa, edo kontratua aurrera eramateko konprometitutako bitartekoak egiaztatzen dituzten dokumentuak.

CADEMeko sarrera-erregistroan aurkeztu behar dira agiri horiek guztiak.

Aipatutako epean behar bezala aurkeztu ezean, lizitatzailleak eskaintza bazter utzi duela ulertuko da. Hori horrela, hurrengo lizitatzailleari eskatuko zaio dagokion dokumentazioa, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraiki.

11.3 CADEMek bost (5) egun balioduneko epearen barruan esleituko du kontratua, dokumentazioa jasotzen den unetik kontatzen hasita. Esleipen hori justifikatu eta motibatu egingo da eta lizitatzaille guztiei haren berri emango zaie, jakinarazpen baten bidez (faxa/posta/posta elektronikoa) eta Kontratatzaillearen Profilean argitaratuz.

12 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

12.1 CADEMek bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatzeko gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzekoa ere.

12.2 Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamar (10) egun naturaleko epean egingo da.

12.3 Kontratuaren formalizazioaren bitartez, CADEMek kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.

12.4 Kontratuak bere baitan bilduko ditu CADEMek kontratatzekeo dituen barne arauan jasotako aipamenak.

12.5 Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, CADEMek behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak CADEMi kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa izango da.

12.6 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.

12.7 Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako IFZ ere aurkeztu beharko dute.

12.8 Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.

13 KONTRATUA GAUZATZEA

a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.

b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.

c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita CADEMentzat edo hirugarrenentzat

kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

- d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).
- e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da
- f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigorputa dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.
- g) CADEMek ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztu aurretik baimendu ez duen ezein lan.

14 KONTRATUAREN ALDAKETA

- a) Ezustekoei eta egoera berriei aurre egin ahal izateko CADEMek zerbitzu-kontratua aldatzeko gaitasuna izango du, baina aldaketa horrek ezin izango du hasierako kontratuaren ehuneko 20a gainditu. Kontratistak derrigorputan onartu behar ditu aldaketa horiek. Aldaketek, kasu bakartuetan edo bere osotasunean ehuneko hori gaindituz gero, kontratistak kontratua eten dadin eskatzeko eskubidea du. Kontratuzko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarri eta horiek negoziatuz.
- b) Kontratistak ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratuaren xedeari dagokionez, aldeztu aurretik adostasunez egin ez bada, eta hala badagokio, kontratazio-organoak ezarritako aurrekontuaren gainean. CADEMen oniritzia edo baimena ez duten aldaketek erantzukizuna ekarriko diote kontratistari, eta horiek eragin ditzakete gastuak kontratistaren kontura joango dira.

15 KONTRATUAREN LUZAPENA

Baldintza-ordri honetako Karatulan aurreikusten diren baldintzak betetz luza daiteke kontratua.

Aurreikusitako luzapenak gertatuko balira, kontratuaren prezioa hasieran zehaztutakoa izango litzateke, baina, luzapeneko urte bakoitzean berraztertutako egingo da aurreko urteari dagokion KPIren %85 aplikatuz. KPIa Estatistikako Institutu Nazionalak ezarritakoa izango da (SPKLen 78.3 art.)

16 PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratistak CADEMen adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den.

Inola ere egingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berriazko baimena jaso ezean, kontratistak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, CADEMek kontratistari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

17 EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK

- a) Kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.
- b) Kontratista edozein epean berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango CADEMek alde aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak CADEMek ezarriko ditu automatikoki.
- c) Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, CADEMek adostutako azken prezioaren %20ko zigorra ezar diezaioke.

Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten CADEMek kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta CADEMek kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

- d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

18 KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA

CADEMek zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatzeko eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldian igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio. Zuzenketa horiek egiteko epea hamabost (15) egunekoa izango da gehienez ere.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, CADEMek lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, CADEMek jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

19 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

19.1 Lan arriskuen prebentzioa

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du.

19.2 Betebehar laboral eta sozialak

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratuak – halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei

buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higie, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakioken lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

f) Kontratu hau sinatzeagatik CADEMek ez du inolako betebeharrak eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du CADEMi erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketean arazoan aurrean.

g) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrak, bai eta kontratistak edo honen azpikontratistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta CADEMi ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak. Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio CADEMi. Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan

h) CADEMek hala eskatzen badiu, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio. Aurkezten ez badiu edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebeharrak ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, CADEMek kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du.

i) Kontratu iraungita, ezin izango dira inola ere CADEMeko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

j) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

k) Behar bezala justifikatuta ez dauden atzerapenak edo dokumentazioa ez aurkezteak ekarriko du kontratua ez betetzea, eta, beraz, CADEMek bertan behera utz dezake kontratua.

19.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak

Kontratatistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landaretan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratatistak. Horretaz gain, CADEMek eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

19.4 Hirugarrenen baimenak

CADEMek bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketa-lanak alde batera utzita, kontratatistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratatistak ordaindu beharko du.

20 ASEGURUAK

Kontratuak honako aseguru hauek eduki behar ditu:

- a) Erantzukizun zibil profesionalaren asegurua. Aseguru honek CADEMENTzat diharduten profesionalek (abokatu, ingeniari, ingeniari teknikoek...) beste bati eragin ahal dizkieten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du.

Aseguru hau ospe handia duen aseguru enpresa batekin sinatu behar da, eta gutxieneko kalte-ordaina ez da 300.000 euro baino txikiagoa izango.

1.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratatistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio CADEMi, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, CADEMen iritziz.

2.- Kontratatistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, CADEMek aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontaktzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, CADEMek eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, CADEMek kontratatistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

3.- Aseguruaren inguruan kontratatistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontratatistek ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, CADEMi eman beharko dizkio azalpenak.

4.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratatistak CADEMi jakinaraziko dio. Era berean, CADEMek hala eskatzen baldin badio, kontratatistak aseguruaren kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio

Kontratastak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

5.- Kontratastaren kargura izango diren arrisku, betebeharrak eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, CADEM-en edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

6.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratastak ordaindu beharko du.

21 EGINDAKO LANEN JABETZA ETA DATU PERTSONALEN ERABILERA

21.1 Egindako lanen jabetza

CADEM-en jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabetza industrial eta komertziala ere, CADEM-en esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe CADEM-ek espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabetzari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabetza intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek CADEM-en esku utziko dute aipatutako jabetza intelektual edo industrialak.

Jabetza intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak CADEM-i eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta aldeztu aurretiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daitezke eta.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratastak kontratugaitzat jo daitezkeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela CADEM-en baimenik gabe. Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzekotan, kontratastak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

21.2 Datu pertsonalen erabilera

Datu pertsonalen erabileratzat honako jarduerak hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragitea eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.

Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratastaren edo azpikontratastaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako arauak hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko dituzte datuak kontratastak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratastak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiek inon erabiltzeko fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistaratzeko ere.

4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
 - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
 - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
 - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatu ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeko aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzekeo egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.
6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, CADEMek kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzekeo.

21.3 Konfidentzialtasuna

Kontratistak konpromisoa hartzen du modu konfidentzian erabiltzeko halakotzat jotzen den informazio oro, eta plegu honetan azaltzen den xederako baino ez du erabiliko informazioa.

Esleipendunak kontratatutako zerbitzuei buruz ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekotzat edo konfidentzialtzat jotzen dira eta beraien identitate eta sekretua gorde behar ditu, eta CADEMek eskatutako lanak egiteko erabiliko du informazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratistak edo pertsonak ezin izango dute EEEK emandako informazioa zabaltzeko, aldatu edo beste bati eman, kontratua gauzatzeko informazioa den aldetik.

Kontratistak konpromisoa hartzen du aipatu informazioa modu konfidentzian erabiltzeko, eta konfidentzialtasun eta sekretutasun horren berri emango die bere langileei, elkartuei edo kontratistarekin harremanak dituen edonori, CADEMekiko kontratu betebeharrak modu egokian gauzatzeko behar den informazioaz, hain zuzen ere.

Aldez aurretik CADEMek baimena eman ezean, eman zaion edozein dokumentu ez du erreproduzitu ezta kopia ere kontratistak (informazio konfidentziala izan dezakeena), zerbitzua emateko ezinbestekoa denean izan ezik.

Kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, hala badagokio, kontratistak dokumentuak eta kopiak itzuli egingo ditu, kontratuaren lanak amaitu eta gero, emango zaizkionak hala eskatzen badio.

22 LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, SPKLen 209 artikuluan zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, CADEMek aldez aurretik eta berariaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena.

Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero. Kontratistak azpikontratak egin nahi izanez gero, SPKLen 210 artikuluan zehazten diren xedapenak bete behar ditu. CADEMi azpikontratu hori adierazten dion idatzian, aipatutako xedapen horiez gain, azpikontratua egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- (i) Kontratistak aldez aurretik jakinarazi behar dizkio CADEMi idatziz egin nahi dituen azpikontratu guztiak, azpikontratista bakoitzari lotutako kontratuaren aldea adieraziz.
- (ii) CADEMek aldez aurretik onartu behar du.

Hala ere, jakinarazitako azpikontratazioa ez onartzeko eskubidea bere gain hartzen du CADEMek, baldin eta proposatutako azpikontrataren gaitasun teknikoa nahiko egiaztatuta ez badago, edo azpikontratua gauzatzeko baldintza teknikoak aski bermatuak ez badaude.

Azpikontratatuak jatorrizko kontratistaren mende geratuko dira eta jatorrizko kontratista hori izango da, CADEMi dagokionez, Plegu honetan eta kontratuan zehazten diren betebeharren ardura izango duena.

23 HIZKUNTZA BALDINTZAK ZERBITZU KONTRATUETAN

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea": a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean.

Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezzen, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

24 KONTRATUAREN ARDURADUNA

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, CADEMek kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariztat aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenaz egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenaz dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

25 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta SPKLen 206 artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

(i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, CADEMek egokitzat joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari CADEMek eskatu eta bere horreketan gauzatutako lanak ordainduko litzaizkioke soilik, arrazoi honengatik CADEMi kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.

(ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.

(iii) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, CADEM baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatu edota lanak gauzatzen jarraituz, berez edo egokitzat jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

26 JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (SPKLen 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzeke eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berriaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroak.

1. ERANSKINA PROPOSAMEN EREDUA

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:.....
Enpresaren bulegoen helbidea:

Datu horiek Kontrataziorako Oinarrizko Baldintzetan agertzen den eran frogatu ostean, hau adierazten dut:

1. Boluetako hirigintza garapenerako energia hornidura zerbitzua emango duen enpresarentzako negozio plan baten kontratua esleitzeko antolatutako LEHIAKETAREN berri emateko EEE/CADEMen Kontratatzailearen Eskakizunean edo Profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen dut.
2. Baldintza Teknikoen Pleguak, Oinarrizko Baldintzenak eta gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dut.
3. Kontrataziorako Oinarrizko Baldintzen Pleguaren lehen klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ere ezagutzen ditut.
4. Eurekin ados nago eta borondatez, bere osotasunean eta aldaketarik gabe onartzen ditut 2. eta 3. ataletan adierazten diren legezko eta arauzko dokumentu eta testuak.
5. Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, gehieneko prezio hauen arabera: ... euro; gehi BEZari dagokion ... euro. Beraz, guztira ... euro.

[Lekua, data eta sinadura]

2. ERANSKINA
LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin
KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:
Enpresaren bulegoen helbidea:

Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak, ez sozietate horretako gobernu-organoetako pertsonak, ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49. artikuluan adierazitako kontratatzeke debekurik.

Halaber, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Eta hala jasota gera dadin, CADEMekin kontratatzeke lizitatzailleek aurkeztu beharreko dokumentazio gisa, ziurtagiri hau egin dut:

[Lekua, data eta sinadura]

3. ERANSKINA
ENPRESA LIZITATZAILEAREN OINARRIZKO DATUAK

| | |
|---|---------------------------|
| Enpresa lizitatzaillearen izena | |
| IFK / IFZ Jarduera nagusia | |
| Helbide soziala | Zentrala: |
| | Bulegoak EAEn: |
| Harremanetarako | Harremanetarako pertsona: |
| | Helbidea: |
| | Tel.: |
| | Faxa: |
| Langile-kopurua | e-mail: |
| | Guztira: |
| | EAEn: |
| Negozio bolumena | Guztira: |
| | EAEn: |
| Akziodunen edo enpresa taldearen izena | |

4. ERANSKINA
EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO AITORPENAREN EREDUA

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:
Enpresaren bulegoen helbidea:

Nire erantzukizunpean, adierazten dut:

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

| | | |
|-------|-------|-------|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

[Lekua, data eta sinadura]

5. ERANSKINA

XEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

1. EGITASMOA

Boluetako hirigintza garapenerako energia hornidura zerbitzua emango duen enpresarentzako negozio plan bat egitean datza egitasmoa.

2. HELBURUA

Egin beharreko lanaren helburu nagusia da energia hornidura zerbitzua emango duen enpresarentzako negozio plan bat egitea, negozioaren garapenari begira epe labur eta ertainean plangintza ezarriz. Planifikazio horretan sartuko dira, besteak beste, egin beharreko inbertsioak, aurreikusitako kutxa-mugimenduak eta sozietate eta araudiei lotutako alderdiak.

3. LANAREN IRISMENA

3.1 SARRERA

Oinarrizko egitasmoa, funtsean, Boluetako bero banaketa zentralizatu (District Heating) egiteko instalazio produktiboak diseinatzean eta gauzatzean datza. Horrekin batera, energia termikoa bideratzeko banaketa sarea ere diseinatu beharko da, zentraletik Orubide gauzatzen ari den egoitza multzo berria osatuko duten zazpi erakinetara garraiatzeko. Egoitza multzo horren promotoreak VISESA eta Neinor dira.

Egitasmoaren helburu zehatza da 1.100 etxebizitzari energia zerbitzuak ematea, eta zerbitzu horiek diseinatzerakoan, energia eraginkortasun eta denboran iraunkortasun eta jarraikortasun irizpideak kontuan hartzea. Hartara, bizi kalitatea hobetzeko eta ingurumen inpaktua gutxitzeko egitasmo horrekin parte hartzaile zuzenak izango dira egoitza multzo horretan biziko diren auzokideak.

Boluetako komunitatea, kontsumo unitate izango den aldetik, ohiko komunitateekin alderatuta, askoz kanpo energia mendetasun txikiagoa izango du. Hori lortzeko, energia sortu, banatu eta kontsumitzeko eraginkortasuna nabarmen hobetu nahi da.

2002/91/CE zuzentarauak, eraikinen energia eraginkortasunaz diharduena, eta haren transposizioa Espainiako legeriara¹, eraikinen energia eraginkortasuna sustatzea du helburu, kanpoko baldintza klimatikoak, tokian tokiko ezaugarriak, barneko giro-eskakizunak eta kostu-efikazia erlazioa kontuan hartuz. Hala, energia ekoizteko orduan, energia berriztagarrietan oinarritutako sistemak instalatzeko edota bero eta elektrizitatearen ekoizpen bateratua egiteko gomendioa ematen da, baterako sorkuntza planten bidez edo berokuntza sistema zentralizatuen bitartez.

¹ 2002/91/CE zuzentarauaren transposizioa hiru errege-dekretu hauen bidez:

- RD 314/2006: Código Técnico de la Edificación (Documento Básico Ahorro de Energía: HE1, HE3, HE4, HE5). 06/03/28 datarekin argitaratua.
- RD 47/2007: Procedimiento básico para la certificación de eficiencia energética de edificios de nueva construcción. 07/01/31 datarekin argitaratua.
- RD 1027/2007: Reglamento de las instalaciones térmicas en los edificios (Documento Básico Ahorro de Energía: HE2). 07/08/29 datarekin argitaratua.

Zuzentarauak xedatzen dituen irizpideak oinarri hartuta, aurreikusitako instalazioak baterako sorkuntza planta bat izango du, sorkuntza termiko sistemari lotua. Baterako sorkuntza eraginkortasun handiko teknika da elektrizitate eta bero sortzeko, bion ekoizpen bateratuaren bitartez energia aurrezteko ahalbidetzen duena.

Egoitza multzorako prestatu nahi den District Heating proiektua bero sortzeko sistema zentralizatua da, bero ekoizpena baterako sorkuntza eta galdara konbentzionalen bidez egingo da, eta erabiliko den erregai primarioa gas naturala izango da. Ekoitziko den sorkuntza termikoari esker, egoitza multzoko auzokideek edo erabiltzaileek berokuntza eta ur bero sanitarioari lotutako energia premiak ase ahal izango dira. Sorkuntza elektrikoa, ordea, bere osotasunean sarera bideratuko da, baterako sorkuntza plantak kontsumituko duen kantitatea izan ezik.

3.2 EGIN BEHAREKO LANAK

Kontratatistak honako lan hauek egin beharko ditu:

- Konponbide orokorra
 - Egitasmoa
 - Beste herrialde edo leku batzuetako enpresek/promotoreek hartutako konponbideen adibideak
 - Beste alternatiba batzuen aldean, abantailen identifikazioa
 - Hasierako promotorea eta egungo jabea
 - Abian jartzeko data
 - Erabiliko diren teknologiak (baterako sorkuntza, etab.)
 - Jartzeko eta mantentzeko kostuak
 - Negozio ereduari aplikagarria izan dakioken legeria, betetzea edo kostua aintzat hartuta: instalazioen ingurumen baldintzak, jartzeko hirigintza eskakizunak, eraikitze eta eragiketen segurtasunaren inguruko araudiak, energiaren merkaturatzea, eta abar
 - Beste batzuk
- Etorkizunean jardungo duen enpresarentzako negozio plan bar egitea.
Negozio plan horrek, gutxienez, honako atal eta eduki hauek izango ditu:
 1. Enpresaren deskribapen orokorra
 - Enpresaren misioa/ikuskerak
 - Helburuak epe labur eta luzean
 2. Ingurunearen azterketa
 - Arrisku potentzialen identifikazioa eta ebaluazioa
 - Aukerak
 - Oztupoak
 3. Antolakuntza eta eragiteko egitura
 - Enpresa banatuko den sail bakoitzean garatuko diren jardueren deskribapena
 - Beste enpresa batzuei azpikontratatuak zaizkion lanen zehaztapena
 4. Giza baliabideak
 - Abian jartzeko giza baliabideen beharraren deskribapena; baita epe ertainean izan litezkeen premiak. Zuzendaritza taldean komenigarriak izan daitezkeen trebetasunak, gaitasunak eta esperientzia zehaztuko dira
 - Antolaketaren diseinua, enpresaren kargu hierarkikoen deskribapena
 5. Legeari eta merkataritzari lotutako alderdiak
 - Enpresaren era juridikoa, eta hori aukeratzeko arrazoibideak edo abantailak, indarrean dauden beste era juridiko batzuen aldean
 - Estatutuak eta bazkideen arteko akordioak
 6. Prezioen politika eta fakturazio sistemak
 - Energia termikoa hornitzeko/saltzeko prezioen politika ezartzea eta bere bilakaera denboran
 7. Bideragarritasun plan ekonomiko eta finantzarioa
 - Plan ekonomiko eta finantzarioak aurreikusten diren inbertsioak eta finantza premiak islatuko ditu; baita espero den kutxa-fluxua (egingo

diren gastuak eta diru-sarrerak). Horrekin batera, diruzaintzaren aurrekontuen, oreka puntua eta inbertsioak eta errentagarritasun parametroak berreskuratzeko aldiaren kalkuluaren inguruko informazioa zehaztuko da

- Jarduteko lehen hamabost urteei begira, plan horrek honako alderdi hauek deskribatuko ditu: aurreikusten diren inbertsioak, finantziario, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuak, behin-behineko emaitzen kontua, diruzaintzaren aurrekontuak, egokitzeko funtsa, behin-behineko egoeraren inguruko balantzeak, banaketaren aurrekontua, etekinen banaketa, inbertsoaren berreskurapena eta espero den errentagarritasuna
8. Inplementazio plana
- Enpresa martxan jartzeko egin behar diren jarduera guztiak inplementatzeko plana
 - Inplementazio-egutegia: jarduera nagusiak eta haien arduradunak
 - Mugarri garrantzitsuak: lortzeko uneak eta beste jarduera batzuekiko loturak
 - Lan talde guztien arteko harreman edo lotura nagusiak (marketing, eragiketak eta abar)
9. Kontingentzia estrategiak
- Kontingentzia estrategien proposamenak, negozioak aurreikusitako helburuak lortzen ez baldin baditu

3.3 EMANEGOAK

Goraxeago aipatutako edukia izango duen honako dokumentazio hau emango dio kontratistak CADEMi:

- Konponbide orokorra (1. emanekoa)
- Energia zerbitzuak emango dituen etorkizuneko enpresarentzako negozio plana (2. emanekoa)

3.4 LANAK EGITEKO EPEAK

CADEMek adierazi eta zehaztuko du lanen hasiera noiz izango den. Une horretatik aurrera, kontratistak bost hilabeteko epea izango du azken dokumentua entregatzeko, entregatzeko tarteko mugarri hauek kontuan hartuta:

- 1. emanekoa: kontratuaren hasieratik hilabetera
- 2. emanekoa: kontratuaren hasieratik 2,5 hilabetera
- 2. Emanekoa (azkena): kontratuaren hasieratik 3 hilabetera